



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2007-12-28**

V.URTEA 1.323.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ITSASO ETXEBESTE BAXU-JOTZAILEA

«'Katamalo' grabatu dudan lehen diskoa da, eta emaitza polita izan da»

BELAUNTZA Bihotz Bakartien Kluba taldearen 'Katamalo' izeneko azken proiektuan hartu du parte musikariak

GAUR Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean eskainiko dute zuzeneko emanaldia, 21:00etatik aurrera »



N. URBIZU

Udaberriren urteurrenako azken saioa, gaur gauean, Leidor aretoan

TOLOSA Euskal Herriko probintzietako dantzak taularatuko dituzte; 22:30ean hasiko da saioa »

ANJEL ARROSPIDE
AIZKOLARIA

«Adinean aurrera egindakoentzat da, bereziki, desafioa»

LEABURU Desafioa bota die beste aizkolariei; hitzordua, urtarrilaren 12an izango da Kantabriko tabernan »



M. SOROA

**Urte Zaharreko
Lasterketa
antolatu dute,
urtero bezala,
Zunbeltz eta
Urkamendik**

VILLABONA-ZIZURKIL

24 urte beteko ditu
aurtengoarekin lasterketak »

OSKI
GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • TOLOSA
943 65 56 21

**M^a Victoria
Ortiz**



Udaberriren urteurreneko azken saioa gaur gauean

Tolosa » Euskal Herriko probintzietako dantzak taularatuko dituzte; «aspaldian ez da horrelako saiorik ikusi Tolosan».

ERREDAKZIOA

Udaberri dantza taldeak bere 50. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko asmoz, emanaldi berezia prestatu du gaur gaueko. Ekitaldia Leidor aretoan izango da, 22:30etik aurrera. Sarrerak bost euroren truke erosi ahal izango dira gaur, antzokiko leihatilan bertan.

Dantza taldearen urteko azken



Udaberriko egungo belaunaldiaz gain aurrekoak ere ariko dira. HITZA

emanaldi honetan, ikuskizun berezi eta ezberdina egitearren, Euskal Herriko probintzietako dantzak taularatuko dituzte. Horien artean, dantza taldeak bere ibilbi-

de luzean interpretatu dituen dantza asko. Esaterako, Arabako zielo, Nafarroako Oteagiko dantzak, Xuberoako maskaradak, Lapurdiko dantzak, Bizkaiko dantzari dan-

tza eta Gipuzkoako dantza ezberdinak.

Dantza taldekoen esanetan, «urte asko dira honelako emanaldi bat ikusi ez dela Tolosan, eta Udaberri egin ez duela». Izan ere, honetarako, dantzari asko behar dira. Hori dela eta, azken belaunaldiko dantzariak gain, aurreko garaietako dantzari batzuen laguntza ere izango dute.

Gaurko emanaldia Udaberri berriaren hasiera puntua izango da, azken urteetako arazoak gaindituta beste 50 urtetan dantzan jarraitzeko prest baitago. Bestalde, emanaldiaren amaieran hainbat origarri banatuko dituzte taldearen historian zehar garrantzitsuek izan diren lagunen artean.

Bestetik, Leidorren sarreran Udaberri dantza taldearen bere 50. urteurrena dela eta kaleratutako DVDak eskuratu ahal izango dira. Hauek 12 euroren truke izango dira salgai.

L Laburrak

Atila y los Unos eta Nekro, ariko dira Asvinenean

ADUNA » Asvinenea arte eszenikoen laborategiak antolatuta, Adunan duten egoitzan bi musika talderen kontzertua izango da bihar 22:30etik aurrera. Bertan, Nekro eta Atila y los Unos taldeak entzun ahal izango dira.

Albizturko 2008ko egutegia salgai da jada

ALBIZTUR » 2008ko Albizturko egutegia salgai da dagoeneko. Egutegia herrian bertan ateratako argazkiez osatuta dago. Hau 10 euroren truke eskuratu daiteke ondorengo lekuetan: udaltxean, Herriko Etxea eta Elane jatetxetan, Ogi-ona okindegian eta Kopy bat dendan.

Mari lur kontu kontari ariko da gaur haur liburutegian

TOLOSA » Gaur, eguerdiko hamabietan, 4-9 urte bitarteko haurrei zuzenduta ipuin kontalaria izango da Errota Haur Liburutegian. Mari lur kontu kontari ariko da haurren arreata bereganatzen.

Alde Zaharra Dendak-en kanpainak baditu sarituak

TOLOSA » Alde Zaharrak Dendak elkarteak Gabonetan jarritako kanpainak baditu irabazleak. Sari-tuak, gaur Olentzero bilakatu dira eta Alde Zaharreko saltokietatik barrena ibiliko dira, beraien sariak hartzen. Ondorengoak izan dira irabazleak: Idoliris Fajardo Larinaga, Manul Gonzalez Aristondo, Jone Erkizia Elustondo eta Mila Zubeldia Gorostidi.

Gipuzkoako seniorren finalak, gaur, Amasan

AMASA » Bihar Gipuzkoako 2. eta 3. mailako Gipuzkoako Seniorren finalak jokatuko dira Amasako pilotalekuan. Herriarrek final garrantzitsu hauekin gozatzeo aukera izango dute. Eskoriatzako Gracia-Iñurategi eta Hernaniko Oiaga Aldazabal izango dira 3. mailako finalean, eta 2. mailari dagokionez, Amezketako Zazpi-Iturri Elkarte-ko Ropon eta Ugartemendiak osatutako bikoteak Añorgako Insausti eta Eizagirrenen aurka ariko dira.

Probintzietako final handia eskualdekoen artean, bihar

PILOTA » Bihar arratsaldean, Beotibar Pilotalekuan 17:00etatik aurrera, Gipuzkoako Kluben arteko txapelketako lehen mailako seniorren arteko finala jokatuko da. Kasu honetan, Zazpi-iturri Elkarte-ko Elurbe-Garmendia eta Aurrera-Saizako Renobales-Galarraga ariko dira. Dena den, lehenengo partidan, Zazpi-iturri eta Oskabi eskolak lehiatuko dira, 3. eta 4. postuak jokatzeo.

Zeini zer egokitu

TOLOSA » Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuak nori egokitu zaizkion erabaki ondoren, atzo eman zuten jakitera bakoitzak zein ezaugarriko etxea izango duen. Jokin Bildarratz alkateak zuzenduta, eta eskatzaileen baldintzak aztertuta, bakoitzari esleitu zaiona zein den mahairatu zuten atzo. i.r.



Urte Zahar Txapelketa jokatuko da Beotibarren

Zesta-punta » Hiru egunetan zehar izango dira partidak; Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriko dira pilotan jokatuz.

ERREDAKZIOA

Eguberri hauetarako torneo bikoitza antolatu du Tolosako Beotibar Zesta-Punta Elkarteak, Urte-zahar Lehiaketa hain zuzen ere. Hala, hiru egunetan zesta-punta partidak izango dira Beotibar pilotalekuan.

Torneoa kadete mailako puntistentzat izango da eta bertan Euskal Herri osoko, Iparraldeko eta Hegoaldeko ordezkari onenak ariko dira lehiatzen, eta noski, tolosarrak ere bai (Joseba Esnaola, Beñat Lopez eta Oier Zaldua). Tolosako lehiaketa honek, besteak beste, erakusten du zer nolako joku mai-

la daukaten euskal puntistek, hau da, zer nolako lana ari diren egiten Euskal Herriko zesta-punta elkar-te desberdinek.

Horretaz gainera, tolosarrei eta hurbiltzen diren zaletu guztiek urte osoan ikusten ez dituzten puntistak ikusteko aukera dute Tolosako Beotibarren. Torneoa honelaxe gauzatuko da: gaur, goizeko 10etan hasiko da norgehiagoka, lau partida jokatuko direlarik. Eta arratsaldean, lauretan ekingo diote beste lau partidarekin. Goizeko bigarren partiduan tolosarrak lekeitiarren kontra jokatuko dute, eta arratsaldean Nafarroako Erriberako kontra.

Bihar, goizez izango dira partidak eta bezperan aurrera egin duten bikoteak ariko dira. Eta etzi, igande, goiz eta arratsaldean ariko dira pilotariak. Arratsaldean jokatuko dira finala eta kontsolazioko partida.

Urtea pasa, urtea etorri

» Kale kantoitok

Joxemi Saizar

Tolosak 751 bete dituen urtearen balantzeari egiteko ordua da. Kale kantoi honetatik begira, ez da aurrekoa baino motelagoa izan, ez horixe. Festa eta kale giroak ez du atzerapausorik egin, alderantziz. Urteroko festa eta ekitaldiez gain, berriak ere izan dira. Udak berri-tzeko urtea ere izan da, kasu batzuetan irudika ezinezko egoera berezietariritsi arte, Lizartza kasu.

Bukatu berri den urtean urtemuga batzuk izan dira eta behar bezala ospatu dituzte. Sakramentinoek 100 urte bete dituzte Tolosan, Udaberri dantzari taldeak 50, Laskorain Ikastolak 40, Titirijai txotxongilo jaialdiak 25... Esan beharra dago Udaberri bi apaiz sakramentinok sortu zutela. Laskorain Ikastolak ere harreman estua izan du sakramentinoekin ia sorreratik. Orden erlijioso honen harreman estua

euskal kulturarekin bistan gelditzen da beraz.

Horrelako ospakizunak onak izaten dira taldeek atzera begirako errepasoa eta aurrera begirako proiektuak burutzeko. Datorren urtean ere izango dira horrelakoak. Nik dakidala, Alpino Uzturre elkarteak urrezko ezteiak beteko ditu eta zenbait ekitaldi ari da prestatzen. Urte Berria Uzturren hasteko deia egin diete mendizaleei. Irurako Kilometroen urtea ere izango da 2008. Herri eta ikastola txiki baten apostu erraldoia aurrera begira indarberrituta ateratzeko izan dadila.

Baina urte berria hasi aurretik, Villabonan merkataritza sustatzeko mugimendua sortu da eta gaur bertan ekitaldi berritzailea antolatu dute. Kale Berriko etxeko arropak denda bateko erakuslehoan maniki bizidunak izango dira gaur eguerdian eta arratsaldean. Herriko bi mutil ezagun ariko dira dendako jantzi berri eta ausartenak erakusten ikusi nahi duenarentzat.

E Elkarriketa

ANJEL ARROSPIDE Aizkolaria



MADDI SORIA

«Gazteentzat baino adinean aurrera egindakoentzat da»

Aizkora » Anjel Arrospide leaburuarak desafioa bota die beste aizkolariei. Sei oinbiko, hiru zutika eta hiru etzanda. Nahi duenak urtarilaren 12an zain izango du Arrospide.

ASIER IMAZ

Hurrengo udaberriak apustu berri bat ekar lezake aizkora mundura, beti ere Anjel Arrospide (Leaburu, 1956) luzatu duen desafiari inork erantzuten baldin badio. Dema zehazteko ordua eta eguna jarriak daude; urtarilaren 12an Tolosako Kantabrikon 20:00ak aldera.

Zein baldintzatan luzatu duzu desafioa?

Edonork har dezake apustua. Sei oinbikotara izango litzateke desafioa, hiru etzanda eta hiru zutik.

Nolatan plazaratu duzu desafioa, barnean zenuen arrazoiak?

Lagunarteko beroaldi baten ondorioz izan da. Lan horretan oraindik lan ederrak eramango genituela

eta hortik sortu zen. Horrelako beroaldi bat izan zen, batenbat etortzen bazaigu jokatzeko eta probatzeko, gogoz aurkitzen gara. **Nola banatuko zenuteko egurren afera?**

Erdibana edo eramango genituzke, baina hori Kantabrikon egin beharreko lana izango da.

Norbaiti zuzendua al doa apustua?

Ez, ez. Nik ez daukat inor buruan edo ez doa inori zuzendua apustua. Nire ustez, inor etorriko baldin bada, Larretxea, Olasagasti, Nazabal edo horietako edozein etorriko dela.

Apustuan egin beharreko lana nahiko lan motza da.

Bai. Hala eta guztiz ere zutikako lan horrek oztopo pixka bat jarritzen du. Zutikako hiru egur handi horiek dezenteko lana dute eta apustua pixkat luzatuko dute.

Gazteak atzera botako dituzte zutikako lanak.

Bai gazteak bai. Apustua nire ustez adinean aurrera joandakoentzat egokiagoa dela. Nazabal izango zen gazteena eta hortik aurrera

Larretxea, Olasagasti edo Mingia edo horrelakoren batek behar du.

Zenbat diru jokatu zenukete?

Gutxiengo bat jarria dugu, lehengo milioi bat pezetan. 6.000 eurotik 9.000 bitarteko horretan ibiliko ginateke.

Nazabal aurten jaun eta jabe izan da?

Bai, erakutsi du punta puntakoa dela. Baina zutikako lanak pixka bat frenatu dezakeela uste dut. Etzanda bezalako maila erakusten ez dugu ikusi zutika, ez orain artean behintzat.

Nola aurkitzen zara zu?

Gustura nago. Urrezko aizkolarien azken bi saioetan ongi aurkitu dut nire burua eta hortik etorri da beroaldia.

Noiz eta non izango litzateke apustua?

Martxoaldean izango litzateke, eta Tolosan, baina, oraindik oso berde aurkitzen da dena.

Zerbait entzun al duzu apostuaren inguruan?

Ez, ez gara inorekin harremanetan jarri orain artean.

Z Zurea da hitza info

Errepresioa areagotuz Leaburu-Txaraman

LEABURU-TXARAMAKO ANV-EAE

EAE-ANV taldeko kideak gara eta ondorengo eskutitzarekin azken egunetan gertatutakoak salatu nahi ditugu azken udal batzarra ere kontuan hartuta.

Azken egunetan herriko zenbait paretetan gure herriko egoera salatzen duten pintadak azaldu dira, normalean udaletxeko langileak margotzen ditu baina egun hauek oporretan denez gure zinegotzia den Jose Martin Deusto aritu da margoketa lanetan. Oporretan aspertuta egongo ote da?

2007ko abenduaren 26an arratsaldeko 20:30ean ezohiko batzarra izan genuen Leaburu-Txaramako udaletxean.

Aspaldi honetan ohitura bihurtu den bezala, 20:00etarako EAE-ANVko kide eta herritarrok Udaleko egungo egoera salatu nahian udaletxe aurrean aurkeztu ginen, eta gure harriduraren gainean Er-

tzaintzaren furgoneta bat azaldu zen. Zein izango da hurrengo pausoa?

Batzarrak bere bidea jarraitu zuen, alkate eta zinegotzi guztiak bere tokia hartu zuten, EAE-ANVko zinegotziak barne, Mari Kruz Agirre alkate lapurrak hitza hartu zuen eta bertako bi zerrenda gaiak irakurri zituen. Alkate eta zinegotzi lapurrek biak onartu zituzten. Bukatzean eta batzarra lasaitasunez igaro ondoren EAE-ANVko hautetsi batek hitza errespetu osoz eskatu zuen eta alkateak uko egin zion. Hori al da herriak eskatzen duen alkate? Herritarren hitza ere entzun nahi ez duen alkate?

Behin eta berriro herriaren hitza errespetatzea eskatzen dugu 182.2 artikulua aplikatu edota gestora bat osatuz hauteskundeetan izandako emaitzak kontuan hartuta.



Udaletxe aurrean ANV-EAEn jarraitzaileak 182.2 artikulua eskatuz. HITZA

Urrezko Aizkorako lehia Ibarren etzi, 12:00etan

A. IMAZ

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren lehia erabakiorra jokatuko da Ibarren etzi. Herriko bi aizkolaria zein baino zein ariko dira 12:00etatik aurrera San Bartolome plazan. Eguraldi txarra egiten baldin bada, Belabieta kiroldegian jokatuko da norgehiagoka.

Otaño vs Mujika

Unai Otaño eta Lasak, Olasagasti eta Jexux Mari Mujika izango dituzte aurrean. Lehia erabakiorra izango da etziko, izan ere, irabazleek txapelketan jarraitu ahal izango dute Azurmendi eta Ugarteburerekin batera. Galtzaileak, berriz, lehiatik kanpo geratuko dira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Amezketan kontsumo gutxiko bonbilen banaketa egingo dute

ERREDAKZIOA

Amezketan kontsumo gutxiko argien edo bonbilen banaketa egingo dute urtarillaren 2an. EEEK (Energia Euskal Erakundeak) eta Amezketako Udalak energia-eraginkortasunari buruzko sinatutako hitzarmenaren promozioa da.

Beraz, asteazkenean 11:00etatik 12:00etara, udaletxearen aurrean banatuko dutena honakoa da: 75 watioko kontsumo gutxiko argia; etxeko energia-aurrezteari buruzko gida; ibilgailuentzako biokarburantei buruzko informazio-liburuxka; autoen gidatze-ikastaro-ei buruzko informazio-liburuxka doan.

Bete beharreko baldintzak

Biztanle bakoitzak bi dokumentazio aurkez ditzake, dokumentazio bakoitzeko (NAN, pasaporte, edo gidabaimena) sorta bat eskuratu ahal izango du.

Txintxarriko abeslariak Eguberrietan ere kontzertuak eskainiko dituzte

ERREDAKZIOA

Alegiko Txintxarri Abesbatza kultur elkarteak antolatuta, Eguberrietako kontzertu berezia eskainiko dute Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek etzi 12:00etan, Alegiko elizan. Ordubeteko emankizuna prestatu dute abesbatzek.

Urteberri egunean ere bai

Urteberriari ongietorria emateko, Txintxarri abesbatzak meza nagusia kantatuko du urtero legez. 11:15etik aurrera, mezako hainbat zatitan parte hartuko du, meza atseginago bat eginez.

Txerria antzinako erara hilko dute bihar, herriko plazan

Abaltzisketa » Irakasle baten proposamenetik hartu zuten ideia; alkateak hilko du txerria, eta ondoren festa izango da.

NEREA URBIZU

Bihar Abaltzisketan jai berezia egingo dute: izan ere, txerri festa antolatu du Udalak. Honen baitan, txerria plazan hilko dute antzinako erara, usadioak dioten moduan. Jexus Mari Gorostidi alkateak berak hilko du txerria eta hainbat zinegotzik lagundu egingo diote lan horretan.

Idéia irakasle baten beharretik suertatu zen, Zumaiako batetik. Zein baserritan egin ez zekiten abaltzisketarrek, eta azkenean, plazan egitea erabaki zuten. Txerria Orendaindik ekarriko dute, eta alkateak esan duenez, «140 bat kilokoa izango da».

09:00ak aldera baratzei zopa eta kafea hartuko dute, aspaldiko ohiturak jarraituz. Ondoren, lanean hasiko dira eta txerria hilko dute. Tripak aterako dizkiogu eta gero hozten utziko dugu zintzilik. Bitartean, jendea hasiko da gibelak eta odolkiak prestatzen eta jendea ikusi egiten diren ikusi ahal izan-



Txerria Orendaindik ekarriko dute. Irudian, leitzako txerri bat. NAIARA GARZIA

go du. «Emakumeak odolkiak egiten ariko dira eta xerrak moztzen ere bai».

Banatzen eta jaten hasi aurretik, noski, albaitariak aztertuko du haragia, ona dela ikusteko.

Txerria zatikatu egingo dute, txikitu eta pintxoak jan ahal izango dira. 11:00ak aldera, «elkartean prestatuko dugu xolomoa eta abar, eta bertan jango dugu hamaiketa-kon moduan». Ardoa ere izango da haragia jan bitartean. Arratsaldean, berriz, herritarren arteko Mus Txapelketa izango da, urtero egiten duten bezala.

Jexus Mari Gorostidi alkateak labana sartuko dio txerriari, baina berak adierazi bezala, ez da hau egiten duen lehen aldia.

Abenduan zeharreko ekitaldia

Abenduan zehar, Abaltzisketan hainbat ekitaldi izan dituzte: ipuin kontalaria izan da, ondoren San Tomas eguna ospatu zuten eta Olentzero ere egin zuten, kalejiran, baserriz-baserriz, urtero bezala. Urteari amaiera emateko eta abenduko ekitaldi desberdinekin bukatzeko, Txerri Festa hau antolatu dute.

Z Zurea da hitza

info

Zakurren gorotzak direla eta, udaletxean kexak jaso ditugu

AMEZKETAKO UDALA

Ba horrelaxe da bai, udaletxean gero eta kexa gehiago jasotzen ari gara zakur gorotzak edo kakak direla eta.

Herrigunea, herriguneko espazio edo eremu publikoak (espaloiak, plazak, eskolak, parkeak, mediku kontsulta aurrea...) herri-tarrek modurik eroso eta egokien

erabiltzeko dira: ez sekula etxean dauzkagun zakurren kumuna. Errespetatu ditzagun herritarrek, bai helduek eta haurrek, egunero erabili behar ditugun guneak eta ibilbideak.

Beraz, dei hau heldu bedi zakurren jabe zaretan guztioi, herriguneari ez baitugu txakur gorotz edo kakarik ikusi nahi. Herrigunetik

kanpora eraman itzazue txakur-rrak egin beharrek egitera eta kasuren batean herriguneko eremuren bat zikintzen bada, garbitu ezazue berehala!

Mesedez eta arren, kontu pixka bat: txakurrik ez Zumadi Eskolako eremuan, txakur kakarik ez, ez parkeetan, ez plazan, ez espaloietan.

'18/98 auzia'-ren «izaera politikoa» salatu du Udalak

Asteasu » Euskal Herriko selekzioak nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea ere aldarrikatu du.

ERREDAKZIOA

Asteasun Udalbatzak hilaren 19an 18/98 prozedura judizialaren inguruan, pleno honetan eztabaidatu eta onartzeko aurkezturiko mozioa onartu zuten, «epaiketa honen izaera politikoa» gogor salatuz eta «prozedura judizial honen abiapuntua politikoa eta demokraziaren aurkakoa» dela argudiatuz.

Hilaren 19ko bilkura honetan beste mozio bat onartu zuten: Euskal Herriko selekzioarekin loturikoa, hain zuzen. «Euskal Herriko kirolariak, beren nazioaren kolorekin euskal selekzioa ordezkatzuz, nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute». Finean, «nazio baten existentzia ukatu nahi da». Honela, biharko Bilboko manifestaziora joateko deialdia luzatu du Udalak.

'Pernando Amezketarra' bertso eskola berria osatu nahi dute Amezketan

ERREDAKZIOA

Amezketan bertso eskola osatu nahi dute, *Pernando Amezketarra* izenarekin.

Horretarako zenbaterainoko interesa dagoen jakiteko asmoz, bertsoen munduan eta eskola bat martxan jartzeko proiektu honetan interesik gabe gero, nahiz heldu nahiz gaztetxo, Beandetxe-berriko Iñaki Amundarain Tolosarekin harremanetan jartzea besterik ez da egin behar. Izena emandako jendetza arabera osatuko dira taldeak.

txokoa

5 sarrera pare
zozketan



TXAN MAGOA

urtarrilak 2
asteazkena
17:00etan
Tolosako Leidorren

HITZAren harpidedunentzat abantailak

5 sarrera pare
zozketan



NIÑO COSTRINI
ikuskitzuna

urtarrilak 3 • osteguna
17:00etan • Tolosako Leidorren



Laskorain Ikastolaren 40. urteurrenaren baitan
Gipuzkoako 8 finalistak
Bertso Jaialdia

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

3 sarrera pare

Irabazleak:

- Ugaitz Iraola (Villabona)
- Kirolzer, S.L. (Villabona)
- Iñaki Rekondo (Ibarra)

abendua 29
22:00etan
Tolosako Leidorren

E Elkarrizketa

ITSASO ETXEBESTE ▶ Baxu-jotzailea

Belauntza »

Abiapuntua literatura duen 'Katamalo' proiektuan baxua jotzen hasi da eta gaur Zizurkilgo Atxulondon ikusteko aukera izango da.

NEREA URBIZU

Ostiral gaua da Bihotz Bakartien Klubean... Poesia eta musika bat eginik eta musika hitz eder horiek apaintzeko. Katamaloa kendu du Itsaso Etxebeste (Belauntza, 1981) Bihotz Bakartien Klubak Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean eskainiko duen *Katamalo* emanaldiaz hitz egiteko. Egun, bera da BBKko baxu-jotzailea. 13 urterekin hasi zen baxua jotzen eta zer edo zer ikasi du, eskuetan hartzen duen aldiro erakusten duen bezala.

'Katamalo' diskoan parte hartu duzu baxua jotzen. Baina ez da diskoa bakarrik.

Katamalo Bihotz Bakartien Kluba taldeak eginiko liburu-diskoa da, osagarriak dira biak. Diskoa, liburua eta maskara ere bada *Katamalo*. Bizkaian du jatorria hitz honek, eta maskara edo kareta esan nahi du; Gotzon Barandiaranek idatzi dituen olerkiak honekin dute zerikusia, hau da, faltsukeria, hipokresia, batzuetan maskara jartzearen beharraz ari da.

Bihotz Bakartien Kluba da taldea: Oinarrian, literatura.

Bai, Gotzon Barandiaran poetak egin ditu letra guztiak, batena ezik: *Katamalo* izeneko 9 koplak Maialen Lujanbio bertsolariak egin zizkigun, espreski eskatu genizkion eta dotore egin ditu. Kontzertuari bukaera emateko jotzen dugukantuhau.

Beraz, 'Katamalo' poesia liburuan dauden poesia batzuk 'Katamalo' diskoan daude?

Hori da. *Katamalo* diskoan dauden 7 kantuetako letrak liburuan daude. Esan daiteke, Gotzon Barandiaranen 7 olerki musikatu ditugula. Gor disketxearekin argita-

'Katamalo' diskoan dauden zazpi kantuetako letrak izen bera duen liburuan daude

ratu dugu, eta Karlos Osinagak grabatu eta nahastu du.

Baxuaz gain, beste zein tresna daude?

Baxua, bi gitarra, biolina, akordeoia, pianoa, kajoia eta kuartroa ikus daitezke, eta kantuan, abestiaren arabera izaten da, baina guztira lau ahots ezberdin entzun daitezke.

Ez da formato arrunta, beraz.

Ez, talde guztietan daude gitarrak, baxua, pianoa ere askotan, baina kajoia, kuartroa, biolina... bereziak



N. URBIZU

«Grabatu dudan lehen diskoa da 'Katamalo', eta emaitza polita izan da»

dira. Tresna asko dira eta moldaketa aldetik lan gehiago egin behar izan da. Tresna bakoitzari kanta bakoitzean garrantzi desberdina ematen zaio. Modu batean, kantua beraien artean desberdinago egiteko aukera ematen du. Berezi ki biolinak, kuartroak eta akordeoiak ukitu berezia ematen diote taldeari.

Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoa proiektu honetan. Nolatan?

Larrabetzuko hiru lagun, Deustoko bat, Lekunberriko bi eta ni gaudela. Nahaste berezi xamarra, bai. Hasieran ez zuten baxu-jotzaile-rik taldean, eta asmoa kontrabaxu-jotzaile batekin jotzea zen, Jon Pirisekin, zehazki. Azkenean, lanez lepozebilenez, baxu-jotzailea bilatzen hasi ziren. Piano-jotzaileak ni

ezagutzen ninduen eta haiekin parte hartzeko esan zidan.

Lehenengo kantan hartzen duzu parte. Nola izan zen grabaketa?

Taldeakideek Erason grabatu zuten, baserri batean. Pirisek grabatu zuen kontrabaxua, eta grabatu genuen azken kantua diskoko lehena izan zen. Karlos Osinagaren etxean, Irunen grabatu genuen: baxua, pianoa (kantua honetakoa) eta aho-tsa. Behin bakarrik jo nuen proba moduan eta hori ateratu zen. *Katamalo* diskoan parte hartzeko berandu esan zidaten, eta handik astebetera grabatu nuen. Egia esan, ez nekien ia ezta zer jo behar zen ere, baina azkenean, nire ustez emaitza polita izan da.

Baduzu aurretik grabatzeko esperientziarik?

Hau lehena izan da. Aurretik soinu teknikari batzuen probetan egon naiz, laguntzen eta baxua grabatzen, beraiek grabatzeko lanetan ikas zezaten, baina ez dut inoiz CD bat grabatu.

Gotzon Barandiaran, Gorka Urbizu: lehendik ezagunak dira, baina 'Katamalo' proiektua zazpi lagunek osatzen dute.

Argi utzi nahi izan dugu hasieratik norbanako bezala gaudela; 7 lagun musika eta poesia egiten. Datorren urtean edo hemendik 6 hilabetera, agian, Bihotz Bakartien Kluba beste 5 lagun desberdinek osatuko dute, nork daki. Bihotz Bakartien Kluba beti egongo da hor, baina partaideak aldatu egin daitezke: Bihotz Bakartien Kluba irekia da, eta nolabait esateko anonimato

» ZIZURKILGO SAIOA

- **Saioa.** Bihotz Bakartien Kluba, *Katamalo* saioa.
- **Lekua.** Atxulondo kultur etxean.
- **Eguna.** Gaur.
- **Ordua.** 21:00etan.
- **Iraupena.** Ordu eta laurden.
- **Emanaldia.** Poesia da abiapuntua: emanaldiko 12 abestiek poesien letrak dituzte.



hori daramagu denok, ez da bat bestea baino protagonistagoa. Berdin du nondik gatozen edo zer egin dugun *Katamalo* ikuskizunetik kanpo. Ez dauka zerikusirik hemendik kanpo egiten dugunarekin. Elkartu gara zirkunstantzialki; denoi interesatzen zaigu proiektu honetan parte hartzea, eta honetan sinesten dugu.

Eta esperientzia bezala?

Gotzonen poesia asko gustatzen zait eta abestiak ere bai. Gainera, taldean giro oso ona dago eta jotzera gustura joaten naiz. Gustatzen

Taldeakide guztiok nahi genuen proiektu honetan parte hartu, eta honetan sinesten dugu

zait egiten ari naizena, esperientzia oso ona izaten ari da.

Nolako da emanaldi bat?

Gotzonek olerki motz batzuk irakurtzen ditu sintonia moduko bat jo bitartean. 12 bat kantua jotzen ditugu eta tarte gehienetan olerkiak daude, rezitatuta. Bukatu aurretik hasierako sintonia hori gogoratzeko dugu agur bezala, eta Maialen Lujanbiok egindako olerkiekin bukatzen dugu ordu eta laurden inguruko saioa. Kantuak hiruk egin dituzte eta estilo ezberdinekoak dira. Horregatik kolore asko dago emanaldi batean. Gainera, saio batetik bestera ere aldatu egiten da, Gotzon Barandiaranek beti ez baititu olerki berdinak irakurtzen, edo gonbidatuen bat izaten dugu, ordena aldatzen dugu... Durangoko saioan, adibidez, Jose Luis Otamendi eta Ubeda anaia gonbidatu genituen.

Jotzen duzun kantuen artean zein da gehien gustatzen zaizuna?

Askok gustatzen zaizkit denak, baina oso gustura jotzen ditut, bai *Betazalak erauztean* eta *Gurrika*. Izan daiteke baxuarekin hauek zehazki jotzea gustatzen zaidalako, baina denak jotzen ditut gustura. Singlea *Irtezi dana* da, eta honek ere indar handia dauka, jendea gustatzen zaio.



Alegiko San Juan ikastetxean Ekuadorgo astea egin zuten azaroan. Irudian, emakume bat dantzan. N. URBIZU

Kichwa kultura gerturatzeko Ekuatoriar Festa bihar, herriko plazan

Leitza » Bertako janaria eta edaria dastatzeko aukera izateaz gain, musika eta dantza izanen dira protagonistak plazan

NAIARA GARZIA

Bihar Ekuatoriar Festa egingen dute herriko plazan, 17:00etatik 19:00etara. Gizarte Zerbitzuko Maite Perurenak azaldu duenez,

«proiektu bat garatzen ari gara eta gizarteratze gaia jorratuz, hainbat ekintza antolatu dira etorkinen inguruan». Biharko festa proiektu horren baitan dago, baina ekimena Gizarte Zerbitzuarena izan zen arren, argi utzi du herrian bizi diren ekuatoriarrek antolatu dutela.

Musika, janaria eta edaria

«Festan kichwa herri indigenaz zertxobait ikasten saiatuko gara oso modu arruntean», dio Maite

Perurenak, «ze dantza motak egingen dituzten, etabertako haragia ze modu ezberdinetan prestatzen duten ikusiz». Edariak eta dantzak ere protagonista izanen dira bihar, festara hurbiltzen direnek beraien musika doinuak entzuteko aukera izanen baitute. Janari dastaketari dagokionez, *frutada* izeneko janaria prestatuko dute, txerri saihezia haien erara prestatua, eta edateko *Quaker* izeneko edaria egingen dute. «Edari honek osagai hauek

ditu: kanela, maracuya, oloa eta azukrea eta Ekuadorren egingen duten edaria da», dio Perurenak.

Kichwa herria zabalduz

«Festa honen helburua oso xumea da», dio Maite Perurenak, gizarte integrazio programako arduradunak, «herrian bere kulturarekin zerikusia duten gauzak antolatze-ko beldurra galtzea, gizon eta emakumeen arteko denbora pasa ezberdinak antolatzea, orain arte gi-

zonen futbolaren eta produktuen salmentaren inguruan besterik ez baitira mugitu». Honetaz gain, Perurenak ere beste helburu bat azpimarratu du: «Beraien umeak bertan integratu nahi dituztenez, beraiek hainbeste maiten duten kultura kichwa umeek ere bizi diren inguruan ikusteko aukera izatea».

Musika

Ekuadorko musika talde bat ere bertan izanen da, Imbayakuna izenekoak. 5 musikariek osatua dago, 2 Ekuadorkoak dira eta 3 Boliviakoak. Hauek zuzenean joko dute eta tarteka. Gainera, Leitzako 6 ekuatoriar bikotek azkeneko hilabete- an ikasten aritu diren dantza dantzatuko dute. Haienztat, ordea, dantza hau dantzatzeko duten lehenengo aldia izanen da. «Kontutan izan behar dugu ez dutela sekulan dantzatu eta gainera dantza hau beraiek grabazio batetik atera eta beraien borondatez ahal duten moduan dantzatzeko dutela», dio Maite Perurenak.

Jendeak nahi izanez gero parte hartu ahaliko duen dantza bat ere egingen dute, eta baita nolabaiteko eskaintza edo *ofrenda*, beraien herrian autoritate bati eskaintzen zaiona. Festa 19:00etan amaituko da.

Etorkinen kopurua, Leitzan

Gizarte Zerbitzuko datuen arabera, Leitzan 44 ekuatoriar bizi dira. Gizarte Zerbitzutik hauek bi talde- tan banatzen dituzte: hemen jaio direnak edo umeak (13), eta helduak (31). Ekuadorko 44 pertsona dauden arren, Latinoamerika osoa kontutan hartuta 60 dira hemen bizi diren hego-amerikarrak, eta beste 4 Ertamerikakoak.

Hego-Ameriketatik gain, azken urte hauetan munduko beste zenbait lekutatik ere herrira bizitzera etorri direnak badira: Portugaldik (47), Errumaniatik (20) edo Argentinatik (23).

Regina Otaolaren 2008ko egitasmoak

Lizartza » Regina Otaola Lizartzako alkateak gaur 08:00etan egingo den bilkuran ondorengo 10 puntuak onartu eta beteko dituztela jakinarazi du.

ERREDAKZIOA

Regina Otaola Lizartzako alkateak datorren urteko egitasmoak egiten, gaur 08:00etan egingo den osoko bilkuran ondorengo 10 puntuak onartu eta beteko dituztela jakinarazi du.

Otsabio mendiari izena aldatuko dio eta Despeñaperros II izena jarriko dio.

Araxes ibaia hemendik aurrera Guadalupe bezala ezagutuko da. Otsolar dantza taldean irakas-



Regina Otaola eta zinegotziak, Lizartzako udaletxean. N. URBIZU

ten dituzten euskal dantzetan Espainiako dantzen zenbait elementu landuko dituzte.

Euskaltegi berriari Regina Otaola izena jarriko dio, eta bera izango da Euskaltegiko lehen ikaslea.

Nuevas Generacionesek Gazte- txean egoitza jartzeko asmoa landuko du.

Bertso eskolan izena emango du.

Pren egoitzaren inaugurazioa egingo du: bertara Joxe Mari Aznar eta Manuel Fraga Iribarne etorriko dira.

Datorren Eguberriek begira, Papa Noelen kalejira bultzatuko duela jakinarazi du, «Olentxerok alkoholen apologia» egingen duela leporatuz.

Inauterietan David Bustamante etorriko da eta pilotalekuan egingo du saioa. Ondoren, pasodoble- poteo herrikoia egingo dute.

Txirrita Gudariaren enparantzari Askatasunaren enparantzara izena jarriko dio.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. Intersatuek deitu 620 72 76 91era.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). Bi logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoak. Uzturre aldera bistak. 665 70 86 35.

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar da Tolosan bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuta daudenek deitu dezatela ondorengo telefono zenbakira: 677 45 25 97.

■ **Irakaslea.** Ingeleseko irakaslea behar da arratsalde klaseak emateko. Deitu 943 67 24 48 edo 686 97 19 62 zenbakietara.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Bertso saioa Hamaika bertute taldearekin Bonberenean, 22:30ean.
■ **Zizurkil.** Katamalo Bihotz Bakar-tien Klubaren kontzertua Atxulondok kultur etxean, 21:00etan.
■ **Anoeta.** Oihulari Clown taldearen *Zai beti zai antzezlan* udal areto nagusian, 22:30ean.
■ **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak urteko azken dantza saioa eskainiko du Leidorren, 22:30ean. Sarre-rak 5 eurotan, Leidorren bertan.
■ **Villabona.** Eresargi Txiki eta Ttipi abesbatzek kontzertu emango dute 19:00etan, Gurea aretoan. Bertan ateratako dirua Mali elkar-tasuna elkartearentzat izango da.

Deialdiak

■ **Tolosa.** *Mihiluze* txapelketa, 17:30ean, Gazte Topagunean.
■ **Tolosaldea.** Aduna, Zizurkil eta Villabonako emaleek odola emateko aukera izango dute anbulategian 18:30etik 20:30era.
■ **Tolosa.** Gabonetako Haur Parkea Zerkausan: gaztelu puzzleak, jokuak... Sarrera doan. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era.
■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatzen duen Gabonetako Merkatu Txikia zabalik dago Kultur Etxean, goizez eta arratsalde. Sahara eta Ekuador laguntzeko izango da bertan ateratako dirua.
■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi nahi du, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela.

■ **Tolosaldea.** Tolosaldea Sahararekin elkarteak janari bilketa jarri du abian eskualdean, Sahararen alde. Dilitak, hegazuak, arroza, azukrea eta konpresak utzi behar dira aurtan, Tolosako Maxi Eroski, Eroski Center eta BM supermerkatuetan, Merkatu Txikian, eta eskualdeko Kultur Etxe edota udal-txeetan.
■ **Tolosa.** Alpino Uzturre mendi elkar-teak 50 urte beteko ditu 2008an. Urte Berri egunean 11:00etan Uzturreko gurutzean argazkia ateratzeko bazkide eta mendizale guztiei deialdia egiten die.
■ **Tolosa.** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalistekin bertso saioa bihar Leidorren 22:00etan Laskorain Ikastolaren 40. urtemugan. Sarrerak salgai Raku, Orbela eta Ikatz tabernetan eta Merkatu Txikian.
■ **Villabona-Aiztondo.** Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateak bi irteera antolatu ditu, urtarrilaren 4ean, bata 2-5 urte bitartekoentzat Eguberri Parkera eta bestea 6-12 urte artekoentzat Eguberri Parkera eta Txuri Urdinera. Izen-ematea, 943 693930 telefonon.
■ **Tolosa.** X. Elkartasun Krosa Kolonbiako proiektu baten alde, abenduaren 31n, 16:00etatik aurrera Zerkausan. Izen-ematea, Aralar Kirolak dendan.
■ **Villabona-Zizurkil.** Urte Zaharreko lasterketa antolatu dute urtero bezala Urkamendi eta Zumbeltz elkarteek. Izen-ematea Urkamendi elkartearen bertan, irteera baino lehen.
■ **Tolosa.** Bilbon bihar jokatu

den Euskal Selektzioaren eta Kat-luniaren arteko partidara joango dira Topagunekoak, 17:00etan Triangulotik abiatuta. 12 euro ordaindu beharko dira Topagunean.

Erakusketa

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Ana Jesus Ansorenaren zeramika ikusgai; Afrikako emakumei egin dien omenaldiarekin daude lotuta.

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Jabier Villarreal Armentarizaren *Paralelo 42* argazki montajeen erakusketa Aranburun.

Zinema

■ **Villabona.** *Adios pequeña, adios* filma emango dute Gurea zine-man larunbatean 22:00etan.

» GUARDIAKO FARMACIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefono zenbakia: 943 65 46 10.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, AM. San Martin, 5. Telefono zenbakia: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

30. URTEURRENA

30 urte
proposatzen
bilatzen
aurkitzen

30 urte
jolasten
harritzen
hunkitzen

30 urte
ikasten
ezagutzen
hazten

30 urte kultura bizitzen, gozatzen

kultura oparoa
zorion aroa